

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

ENPLEGUAREN ETA GARAPEN EKONOMIKO IRAUNKORRAREN SAILA

Tokiko Gobernu Batzarrak 2019ko martxoaren 29an hartutako erabakiaren laburpena: Gasteizko udalerrian 45 urtetik gorako enplegu egonkorra eta kalitatekoa sustatzeko laguntza ekonomikoak emateko udal programaren berriazko deialdia. 2019. urtea

BDNS (Identif.): 451482

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan aurreikusitakoaren ildotik, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Diru-laguntzen Datu-base Nazionalen kontsulta daiteke <http://www.pap.minhap.gob.es/bdns-trans/index>, baita Gasteizko Udalaren webgunean ere <http://www.vitoria-gasteiz.org>.

Lehen. Onuradunak

Diruz lagun daitezkeen jarduerak Gasteizko udalerriko lantoki batean burutzen dituzten enpresa edo erakundeak, edozein delarik ere beren forma juridikoa, baldin eta berrogeita bost (45) urtetik gorakoak mugagabe kontratatzen badituzte edo horien aldi baterako kontratuak mugagabe bihurtzen badituzte, lanaldi osoan edo lanaldiaren ehuneko berrogeita hamarrean gutxienez.

Bigarrena. Xedea

Gasteizen 45 urtetik gorako kontratazio mugagabea eta enplegu-egonkortasuna sustatzeko laguntzak emateko baldintzak arautzea.

Norgehiagoka baliatuko da laguntzak emateko prozedura gisa.

Hirugarrena. Oinarriak

2018ko abenduaren 28an onetsi zituen Tokiko Gobernu Batzarrak Gasteizko Udalaren diru-laguntzen deialdiak arautzen dituzten oinarri orokorrak (2019ko otsailaren 13ko ALHAO, 19 zenbakia), eta 2019ko martxoaren 29an, berriz, laguntza horien 27 ildoan, 45 urtetik gorako enplegu-egonkortasuna sustatzeko laguntza ekonomikoen deialdia. 2019. urtea.

Udalaren webgunean www.vitoria-gasteiz.org eta herritarrei laguntzeko bulegoetan kontsulta daitezke biak.

Laugarrena. Zenbatekoa

Laguntza deialdi honek 400.000,00 euroko zuzkidura du, 2019ra luzatutako udal aurrekontuko 0823.2411.489.67 partidaren kontura Enplegu-egonkortasunerako laguntzak. Enpresa edo autonomo bakoitzeko gehienez bi mugagabeko kontrataziorako edo aldi baterako kontratu mugagabe bihurtzeko laguntza emango dira urtean, gizarteratze enpresen kasuan izan ezik, hiru kontratutarako eman ahal izango baita halakoetan. Diru-laguntza lanaldi osoko kontratu mugagabe bihurtzen den aldi baterako kontratuaren urteko soldata gordinaren ehuneko 40ekoa izango da gehienez, kontratazio bakoitzeko 7.000,00 euroko mugarekin; lanaldi partzialekoa bada, parte proportzionala; 8.000,00 eurora, gehienez, igo ahalko da kopuru hori, 55 urtetik gorakoak badira.

Bosgarrena. Eskabideak aurkezteko epea

Deialdiaren oinarriak ALHAOn argitaratzen diren egunetik 2019ko irailaren 30era arte.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko apirilaren 3a

Administrazio Zerbitzuko burua
LUCIO CRUCELEGUI Y JÁUREGUI